

## XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 694

*3/2012 DEKRETUA, urtarrilaren 31koa, Nekazaritza-Ekoizpen Ekologikoan parte hartzeko laguntzei buruzkoa.*

2007-2013 aldiari dagokion landa-garapeneko politikarako esparrua Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Erregelamenduak, 2005eko irailaren 20koak, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (FEADER) bidez landa-garapenari laguntza ematekoak, ezartzen du.

Arau berri horren ondorioz, estatu kideek berriazko programak garatzen dituzte, Europar Batasunaren erregelamendu berrian ezarritako neurriak bultzatzeko. Erregelamendu berri horrek Euskal Autonomia Erkidegoan du isla, 2007-2013 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Programaren prestaketan, Europako Batzordeak 2008ko otsailaren 15eko C (208)704 Erabakiaren bidez onartuan, hain zuzen. Aipatutako programan sartutako neurrietako bat elikagaien kalitateari buruzko programetan nekazariak parte hartzeari buruzkoa da. Neurri horren xedea da, programa horietan parte hartuz, kontsumitzaileei produktuaren edo erabilitako ekoizpen-prozesuaren kalitatearen bermeak eskaintzea, elikagaiei balio erantsi bat ematea eta merkaturatzeko aukerak handitzea. Programa horietan parte hartzeak batzuetan kostu eta betebeharrak gehigarri batzuk sortzen dituzenez, eta merkatuak ez dituzenez beti behar adina saritzen, nekazariak programa horietan parte har dezaten sustatu behar da. Sustapen-jarduera hori abenduaren 2ko 203/2008 Dekretuaren bidez, elikagaien kalitate programak sustatzeko eta parte hartzeko ekintzetarako diru-laguntzei buruzkoaren (Bikain programa) bidez, gauzatu da (249. zenbakiko EHAA, 2008ko abenduaren 30ekoa), baina ez modu globalean ekoizpen ekologiko guztirako. Arau-xedapen horrek Landa Garapen Iraunkorreko Programan adierazitako produktu ekologikoak soilik hartzen ditu bere baitan; hau da, produktu ekologiko begetalak (fruituak eta fruitu lehorrak, zerealak, barazkiak) eta animalia-jatorriko produktu ekologikoak (behi-haragia, ardi-haragia, oilasko-haragia, esnea, arrautzak, eztiak). Hala, abenduaren 2ko 203/2008 Dekretuaren bidez araututako diruz laguntzeko programatik kanpo geratu dira gainerako produktu ekologikoak, eta arrazoirik gabeko diskriminazio-egoera bat sortu da.

Gainera, xedapen horrek prima bateratu bakar bat ezartzen du kalitate-programa bakoitzerako, produktu bakoitzerako ezarritako kontrol- eta ziurtapen-kostuen arabera kalkulatuak. Produktu bakar bati buruzko kalitate-programetan prima bateratu bakar bat ezartzea justifikatuta dagoen arren, ez dio erantzuten nekazaritza-ekoizpen ekologikoaren errealitateari. Izan ere, produktuen aukera zabalago bat dagoela kontuan hartu behar da, eta, beraz, kontrol- eta egiaztapen-kostu bat produktu-mota bakoitzerako.

Horregatik, dekretu honen xedea da nekazaritza-ekoizpen ekologikoan parte hartzen duten eta abenduaren 2ko 203/2008 Dekretuaren aplikazio-esparruan sartzen ez diren nekazariak laguntzea. Xedapen hau nekazaritza-produktuak ekoizten dituzten enpresa txiki eta ertainetarako estatuko laguntzen Tratatuak 87. eta 88. artikuluen aplikazioari buruzko 2006ko abenduaren 15eko Batzordearen 1857/2006 (EE) Erregelamenduaren 14.2 f artikuluen esparruan eman da, eta horrek aldatzen du, hain zuzen ere, 70/2001 (EE) Erregelamendua.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egin du dekretu hau, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura artekoetan xedatutakoa kontuan hartuta.

Dekretu hau egiteko, sektoreko erakunderik adierazgarrienak kontsultatu dira eta nahitaezko txosten guztiak ere baliatu dira.

Ondorioz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko urtarrilaren 31n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea eta izaera.

1.– Dekretu honen helburua nekazaritza-ekoizpen ekologikoa sustatzeko diru-laguntzen araubidea ezartzea da.

2.– Dekretu hau dela-eta ematen diren diru-kopuruak itzuli behar ez diren diru-laguntzak izango dira.

##### 2. artikulua.– Onuradunak.

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak kudeatzen duen Operadoreen Erregistroan izena emanda dauden pertsona fisiko edo juridikoak dekretu honetan ezartzen diren laguntzen onuradunak izan daitezke.

##### 3. artikulua.– Eskatzaileen betekizunak.

Eskabidea egiteko unean, eskatzaileak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak kudeatutako Operadoreen Erregistroan izena emanda egotea.

b) Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluari deialdiaren aurre-aurreko ekitaldiko kuotak ordaindu izana.

c) Foru-ogasunekiko eta Gizarte Segurantzaren aurreko zerga-betebeharretan egunean egotea.

d) Erakunde eskatzaileak ez izatea diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penalik zein administrazio-zehapenik, eta ez izatea horretarako legezko inolako debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin bat etorritik.

e) Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren zigorrik jasota ez izatea.

##### 4. artikulua.– Erakunde laguntzailea.

1.– Dekretu honetan xedatutako diru-laguntzak kudeatzeko eta ordaintzeko, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua (aurrerantzean, Kontseilua) erakunde laguntzaile izendatzen da, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenean, ezarritako baldintzetan, bai eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoetan ere; azken horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautzen du, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, araubidea eta betebeharrak ezartzen ditu.

2.– Kontseiluak, erakunde laguntzailea den aldetik, betebeharrak izango ditu:

a) Jasotako eskaerak aztertzea, eta esleipen-prozedura amaitu ondoren, ebazpen-proposamena helaraztea Elikagaien Kalitateko zuzendariari.

b) Jasotako funtsak onuradunei ematea, dekretu honetan aurreikusitakoari jarraituz.

c) Diru-laguntza jasotzeko eta erabiltzeko baldintza edo eskakizun erabakigarriak betetzen diren eta eraginkorrak diren egiaztatzea, bai eta jarduera egin den eta haren helburua bete duen ere.

d) Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzan justifikatzea jasotako funtsen erabilera, eta onuradunak aurkeztutako justifikazioa bidaltzea.

e) Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzak burutu ditzakeen funts horien kudeaketaren egiaztatze-jarduketari men egitea, bai eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagozkienei ere.

5. artikulua.– Eskabideak eta agiriak.

1.– Laguntza-eskabideak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Elikagaien Kalitateko zuzendariari zuzendu behar zaizkio, eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko egoitzan, 01010 Vitoria-Gasteizko Donostia kalearen 1.ean, edo Herri Administrazioen eta Ohiko Administrazioaren Prozeduraren Araubide Juridikoari buruzko 38.4 artikuluan aipatzen den edozein tokitan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere Erakunde Autonomoekin dituzten erregistroak sortzeko, antolatzeko eta eragiteko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuaren arabera. Eskaera egiteko, dekretu honen I. eranskinean ezarritako inprimakia bete beharko da eta hemen aurki daiteke: [www.nasdap.ejgv.euskadi.net](http://www.nasdap.ejgv.euskadi.net).

2.– Laguntzak eskatzen dituzten pertsonak agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NANaren fotokopia.

b) Pertsona juridikoa bada, enpresaren IFKren, ahalorde-eskrituraren eta legezko ordezkariaren NANaren fotokopia, eta erakundearen eratze-eskrituraren eta estatutuen fotokopia, dagokion erregistroak zigilatuta. Agiri horiek dekretu honen esparruan eman badira eta eskatzaileak adierazten badu ez dela inolako aldaketarik egon agiri horietan, aurkeztutzat hartuko dira.

c) Dagokion foru-ogasunarekin dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dauzkala erakusteko ziurtagiria.

d) Erantzukizunpeko adierazpena, aurkeztutako agiri guztiak egiazkoak direla adierazteko, beste administrazio baten edo erakunde baten (publikoa zein pribatua) laguntza jaso edo ez jaso izanarena, eta 3. artikuluan e) idatzi-zatian ezarritako eskakizunak betetzearena.

e) Erantzukizunpeko adierazpena, edozein administrazio publikori edo erakunderi, publiko edo pribaturi, eskatu zaion eta lortu den ala ez diru-laguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo beste baliabide ekonomikorik xede bererako.

3.– Kuota ordaindu den edo ez ofizioz egiaztatuko du Kontseiluak.

4.– Eskabideak aurkezteko epea dekretu honen 13. artikuluan adierazitako deialdia egiteko aginduan zehaztuko da, 2011. urteko ekitaldirako xedapen iragankorrean ezarritakoa kontuan hartuta.

5.– Eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, Elikagaien Kalitateko zuzendaritzak interesdunari jakinaraziko dio hamar egun balioduneko epea duela akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen, 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik egindako ebazpena eman ondoren.

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Deialdiaren aurre-aurreko urtean nekazariak Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluan ordaindutako kuotak diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira.

7. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

Gehienezko laguntza diruz laguntzeko moduko gastuen % 80ra irits daiteke. Dena dela, eman beharreko diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoak ezingo du gainditu 2005eko irailaren 20ko Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Erregelamenduaren –Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (FEADER) bidez landa-garapenari laguntzeari buruzkoaren– eranskinean 3.000 euro finkatutako zenbatekoa, erregelamendu bereko 32. artikuluan adierazitako neurriari dagokion laguntza emateko, 2006ko abenduaren 15eko Batzordearen 1857/2006 (EE) Erregelamenduaren, nekazaritza-produktuak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainei estatuko laguntzak emateko Tratutako 87. eta 88. artikuluen aplikazioari buruzkoa eta 70/2001 (EE) Erregelamendua aldatzen duenaren, 14.2 f) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

8. artikulua.– Esleipen-prozedura.

1.– Diru-laguntzak lehiarik gabeko prozeduraren bidez emango dira, baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen artean. Urteroko deialdian xedatutako zenbateko ekonomikoa nahikoa bada kalkulaturako kopuruak emateko, guztiek jasoko dute aurrez erabakitako zenbatekoa.

2.– Gehienezko zenbatekoa ez bada nahikoa eskatzaile guztien laguntzak ordaintzeko, eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean banatuko da, bakoitzarentzat hasiera batean kalkulaturako kopuruak kontuan hartuta, eta zenbateko osoa proportzio horri jarraituz banatuko da.

9. artikulua.– Finantzaketa.

1.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko dira.

2.– Aurrekontu-ekitaldi baten barruan eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ezingo du gainditu urteroko deialdirako aginduan finantzaketarako bideratutako gehienezko zenbatekoa, edo hura eguneratzean lortzen dena, indarreko legeriak kreditu-loturari edo aurrekontu-aldaketari buruz aurreikusten duenarekin bat etorritik.

3.– Zenbateko hori aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan hartuta, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren beste laguntza-programa batzuetan agortu ez diren aurrekontuetan sobera geratu izan denaren arabera, haien ebazpenak eman baino lehen. Nekazaritza eta Landa Garapenerako sailburuordearen ebazpen baten bidez jakinaraziko da gorabehera hori.

#### 10. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdiaren ebazpena bakarra izango da eta Elikagaien Kalitateko zuzendariari dagokio hura jakinaraztea, aurrez Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak proposamena egin ondoren.

2.– Ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren ebazpenik izan ezean, interesdunek eskabideak ezetsi direla pentsatu ahal izango dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

3.– Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren kontra, pertsona interesdunak gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango du Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jaso eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, edo hiru hilabeteko epean, administrazio-isiltasunak eragina duen egunaren hurrengo egunean zenbatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

4.– Diru-laguntzei buruzko ebazpena behin betikoa denean, banan-banan jakinarazteaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordearen ebazpen baten bidez.

5.– Onuradunei diru-laguntza horiek emateko –eta, bidezko denean, ordaintzeko– ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa– edo zehapen-prozedura guztiei amaiera ematea.

#### 11. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Dekretu honetan xedatutako laguntzen onuradunek betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Horren haritik, diru-laguntzaren onuradunak diru-laguntza jasotzeari buruzko jakinarazpena jasotzen duenetik hamabost eguneko epean ez badio diru-laguntzari idatziz uko egiten, diru-laguntza hori isilbidez onartu dela ulertuko da.

b) Elikagaien Kalitateko Kontseiluari eta Zuzendaritzari haiek eskatutako informazio guztia ematea, jasotako diru-laguntzen zertarakoa eta zer helburu betetzeko eman diren kontrolatu ahal izan dezaten.

c) Diruz laguntzeko moduko ekintza bererako beste edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk emandako laguntzak edo diru-laguntzak Kontseiluari idatziz jakinaraztea, eskaera aurkeztu eta gero eta lehen ordainketa baino lehenago onartu edo jaso badira.

d) 1/1997 Legegintzako Dekretuaren, azaroaren 11koaren, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenaren, 50. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.

#### 12. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

Diru-laguntza erakunde laguntzaileak ordainduko du, onuradunak dagokion foru-ogasunarekiko zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketan egunean dagoela ziurtatu ondoren, eta, horretarako, bi hilabeteko epea izango du, diru-laguntza emateko ebazpena jasotzen duenetik.

13. artikulua.– Deialdia egiteko urteroko agindua.

1.– Urtero, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren agindu baten bidez, dekretu honetan xedatutako laguntzen deialdia egingo da.

2.– Aginduan hau zehaztuko da:

a) Eskabideak aurkezteko epea.

b) Eskatutako laguntzen guztizkoari aurre egiteko bideratuko den gehienezko zenbatekoa.

14. artikulua.– Diru-laguntzen baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako diru-laguntzak eta laguntzak jasotzeko baldintzen aldaketa idatziz jakinarazi eta justifikatu behar zaio Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzari, eta diru-laguntzak onartzeko ebazpenaren aldaketa eragin dezake, betiere dekretu honetan ezarritako gutxieneko eskakizunak eta laguntzaren helburua babestuz. Horrenbestez, Elikagaien Kalitateko zuzendariak dagokion likidazio-ebazpena emango du, eman den diru-laguntzaren zenbatekoa oinarri berrira egokituta, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitako itzulketa-prozedurari hasiera emanez, hala badagokio.

15. artikulua.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Laguntza eskatu duen pertsonak atzera egiteko aukera izango du. Eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen burutu behar da atzera-egitea, eta idatziz aurkeztu behar zaio Elikagaien Kalitateko zuzendariari, ebazpen baten bidez atzera-egitea erabat onartu eta prozedura amaitutzat eman dezan.

2.– Laguntzaren onuradunak jasotako laguntzari uko egiteko aukera izango du, ebazpena jakinarazten denetik gastua egiten amaitu arte. Idatziz aurkeztu behar zaio Elikagaien Kalitateko zuzendariari, ebazpen baten bidez uko-egitea erabat onartu, eta prozedura amaitutzat eman dezan. Uko-egitea onartu ondoren, onuradunak ebazpen baten bidez onartutako eskubidea automatikoki galduko du, bai eta lortutako laguntza osorik edo partez jasotzeko eskubidea ere. Uko-egitea onartu ondoren, hala dagokionean, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitako itzulketa-prozedura hasiko da.

16. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Nolanahi ere, onuradunak dekretu honetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako baldintza eta betebeharretako bat edo, hala badagokio, diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritakoetako bat betetzen ez badu, laguntzaren helburua osorik galduz, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan ezarritako itzulketa-zioetako batean erortzen bada, Elikagaien Kalitateko zuzendariak, ez-betetzeagatiko espediente izapidetu ondoren (interesduna entzunda), beste ebazpen bat emango du, bertan diru-laguntzarako eskubidea galdu dela aldarrikatuko du, eta, behar izanez gero, jasotako laguntzak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola aginduko du, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53. artikuluan ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, ez dira baztertuko gainerako bidezko ekintzak. Zenbateko horiek sarrera publikotzat joko dira legezko ondorio guztietarako.

2.– Administrazio arloko arau-hauste izan daitezkeen gertakariak eragin badute itzulketaprozedura, kasuan kasuko organo eskudunari jakinaraziko zaio hori, dagokion zehapen-prozedura has dadin.

17. artikulua.– Bateragarritasuna.

Diruz laguntzeko moduko gastu baterako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, beste administrazio publiko batzuek edo erakunde pribatuek emandako laguntzak bateragarriak dira, eta ez dute eraginik dekretu honen 7. artikuluan ezarritako gehienezko zenbatekoan.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu honetan ageri diren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari eta Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzari buruzko erreferentziak gai bakoitzeko eskumenak dituen Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen dekretuaren arabera dagokion sailari buruzkoak eta egitura organikoaren eta funtzionalaren arabera dagokion zuzendaritzari buruzkoak direla ulertu behar da, hurrenez hurren.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Garapen-ahalmena.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari ahalmena emango zaio, bere eskumenaren esparruan, dekretu honetan ezarritakoa aplikatzeko eta garatzeko behar adina xedapen eman ditzan.

Bigarrena.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urtarrilaren 31n.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,  
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

## ERANSKINA, URTARRILAREN 31KO 3/2012 DEKRETUARENA

## NEKAZARITZA-EKOIZPEN EKOLOGIKOAN PARTE HARTZEKO LAGUNTZAK

## I.– ESKABIDEA

Eskatzailearen datuak:

Izen-abizenak: .....

NAN-zenbakia: .....

Kalea eta zk. ....

Udalerrria ..... PK: .....

Telefonoa: ..... Faxa: .....

Helb. el.: .....

Honako honen ordezkari:

Enpresa: ..... IFZ/IFK: .....

Kalea eta zk. ....

Telefonoa: ..... Faxa: .....

Helb. el.: .....

Udalerrria: ..... Herrialdea: ..... PK: .....

Harremanetarako pertsona enpresan .....

Tel.: .....

HONAKO HAU ESKATZEN DU: urtarrilaren 31ko 3/2012 Dekretuan, Nekazaritza-Ekoizpen Ekologikoan parte hartzeko laguntzei buruzkoan, xedatutako laguntzak jasotzea.

Gauzatu beharreko gastu osoa (BEZik gabe) ..... €
---

.....(e)n, 20..ko .....aren .....a.

Eskatzailearen sinadura eta enpresaren zigilua (hala behar bada).



## II.- ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA.

Izen-abizenak ..... NAN-zenbakia: .....

Enpresa honen ordezkari: ..... IFK: .....

## AITORTZEN DU:

- a) Laguntza-eskabidean adierazitakoa egia dela, eta eskabidearekin batera aurkeztutako agiriak benetakoak direla; gezurrik edo datu okerrik azalduz gero, erantzukizun osoa bere gain hartuko duela; eta ez duela adieraziko gezur edo datu oker horiek eragin dituzten gertaerak ez zituela ezagutzen.
- b) Laguntza-eskabide hau ez ezik, proiektu honetarako laguntza eskabidea ere aurkeztu duela edo/eta laguntza lortu duela, segidan adierazitako erakunde publiko edo pribatuetan; halaber, erakunde pribatuei zein publikoei proiektu honetarako aurkeztu dizkien laguntza-eskabide guztien berri emateko konpromisoa hartu duela:

Eskabide-eguna	Erakundea	Programa	Eskatutako zenbatekoa	Esleitutako diru-laguntza

- c) Halaber, hitz ematen duela Eusko Jaurlaritzaren eta Europar Batasunaren eskura jarriko dituela beharrezko agiri guztiak.
- d) Ez duela diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio- edo zigor-zehapenik, eta ez duela horretarako legezko inolako debekurik, sexu-bereizkeriagatik debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenean zehaztutakoarekin bat etorritz.

.....(e)n, 20....ko .....aren .....a.

Ordez kariaren sinadura eta enpresaren zigilua

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskatzen zaizkizun datuak fitxategi automatizatu batean sartuko direla, prozesatzeko. Nahi izanez gero, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, legean ezartzen den bezala. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari idazkia bidali beharko diozu, bera baita zure datuak prozesatzeko arduraduna. Hauxe du helbidea: Donostia kalea, 1, Vitoria-Gasteiz.

## III.– AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Eskatzailea pertsona fisikoa bada, beraren NANaren fotokopia.
- Eskatzailea pertsona juridikoa bada, enpresaren IFKren fotokopia eta legezko ordezkariaren ahalmentze eskriturarena eta NANarena, eta erakundearen estatutuen eta dagokien erregistroan inskribatua egotearen fotokopia ere bai.
- Kasuan kasuko foru-ogasunarekiko zerga-betebeharrak konplituak izateari buruzko agiria, eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izateari buruzko agiria. Azken 5 urteetan diru-laguntzarik jaso ez badu Eusko Jaurlaritzarengandik, Hirugarrenaren Atltaren Agiria eta enpresaren titularraren IFZ edo NANaren fotokopia.

Edonola ere, Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzak aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertu, ebaluatu eta eskabidea izapidetzeko beharrezko irizten dituen bestelako argibide eta/edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

## INFORMAZIOA, ESKABIDEAK ETA AURKEZTEKO LEKUA

Laguntzen programari buruzko kontsultak, .....  
posta elektronikoaren edo ..... telefonoan egin daitezke.  
Inprimakiak eta gainerako agiriak [www.nasdap.ejgv.euskadi.net](http://www.nasdap.ejgv.euskadi.net) orrian eskuragarri daude.

Eskabideak hemen aurkeztuko dira:

**Elikagaien Kalitateko Zuzendaritza**  
**Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila**  
**Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz**

Edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan xedatutako bideren bat erabiliz.